

Aingirak, amorraiak eta eskailuak hilda azaldu dira Epelerrekan

■ Udaltzaingoak analizatzera eraman ditu zer gertatu den aztertze, baina, oraindik ez dago ezer garbirik ■ Arraiak asteartean azaldu ziren.



Epelerrekan arraiak hilda agertu ziren ingurua.

EPELERREKAN amorraiak, aingirak eta eskailuak hilda azaldu dira. Udaltzaingoak zabalduko informazioaren arabera, dexente azaldu dira gainera.

Izenak dion bezala, Epelerreka Epelan behera datorrena da. Ereñotzurako bidean Epelako rekta hasten den horretan pasatzen da bide azpitik eta Lastaola Behekoan biltzen

da Urumeara. Arraiak hilda bidez behetik Urumearako tartean azaldu dira, bi lekutan.

EMAITZEN ZAIN

Ez dirudi hainbeste arrai batera berez hiltzeko arrazoirik badagoenik. Udaltzaingoak hildako arraiak analizatzera eraman ditu Tolosara eta emaitzen zain dago zer gertatu den argitzeko.

URTEBETEAN BI

Epelerrekakoa ez da azken urtebete honetan arraiak hilda azaltzen diren aldi bakarra. Joan den irailean Portuko erreka erre zen barianteko obrak egiten ari zirela istripuz kolektoreko tuberia zulatuta. Orduan, barianteko zubi partetik behera ehundaka eta ehundaka aingira eta amorrain hilda ziren. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Gipuzkoa mailako 'minifoso' plater tiraketa gaur Santa Barbaran,

■ 16:00etatik 18:00etara da izena ematea ■ 126.000 pta daude saritan.

Roxario Pikabea libre utzi du epaileak fiantsa ordainduta

■ Gaur goizaldera iristekoa zen Hernanira.



Roxario Pikabea Santa Barbaran aizkora txapelketan.

ROXARIO Pikabea libre utzi du epaileak milioi bateko fiantsa ordainduta. Roxariok joan den maiatzaren hiruan bere burua aurkeztu zuen epailearen aurrean. Epaileak kartzelan sartu zuen ETA-ko muga aparatorekin zerikusia zuelakoa. Pikabearen abokatuak kartzeleratze aginduaren kontrako errekurtoa jarri eta epaileak hernaniarra libre utzi du.

ONGI ETORRIA

Hernaniko Amnistiaren Aldeko Batzordeek jakinarazi dutenez, hernanira iristean Roxario Pikabea ongi etorri omenaldia egitekoa zioten Garin tabernan. □

OSTEGUNEKO PLENOA

EH eta EA-EAJko mozioak mahai gainean gelditu ziren EA-EAJk hala eskatuta

■ Joxan Rekondo zinegotziaren hitzetan "kontestu egokia ez zelako" erretiratu dute mozioak.

EH-KO zazpi zinegotzirekin egin zen osteguneko plenoa. Osteguneko Kronikan genioen bezala bi mozio zeuden eztabaidatzeko, EH eta EA-EAJrena. EA-EAJk ostegun goizean bertan mozioa erretiratzea eskatu zuen, ordea, "azken gertakarien ondoren kontestu egokia ez zelako". Hala ere aurreragoko pleno batean aurkezteko asmoa dute. EA-EAJrena erretiratuta EHk ere erretiratu egin zuen berea.

HIRU ZUZENDARI

Plenoak onartuta musika eskolako zuzendaria Arantxa Alberdi Salaberria izango da

eta idazkaria Garbiñe Orbegozo Senperena; *MarieLuts* haur eskolako zuzendaria Ana San Sebastian Gorostidi izango da; eta Udal Euskaltegia Gurutze Salaberria Garmendia.

AZKEN GERTAERAK

Plenoa bukatu aurretik Manu-el Fraile zinegotziak hitz egin zuen azken gertakarien iguruan "Demokrazia faltaren ondorio" direla eta egoera konpontzeko alternatibak mahai gainean jarri dituztela esan zuen besteak beste. Alderdi politiko, agente sozial eta gainerakoei arazoa konpontzeko berriro ere dei egin dietela gaineratu zuen. □



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Ikusi al duzu Mondeo berria?



Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

PUTZUETA HARATEGIA - URDAITEGIA



Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
20120 HERNANI

Telemar

ITXASTELE S.L.
Telyco denda

Elkano 13, ☎ 943 33 26 00
20120 HERNANI

ESKAINTZAK:

ordenagailua:

AMD K7 ATHLON 1000 Mhz
(SDRAM 512 Mbko memoria, 40 Gbko diska gogorra, 17"ko monitorea, Geforce MX 32 Mb AGP tarjeta grafikoa, DVD Pioneer irakurlea, Yamaha Erregabodorea, Sound Blaster 1024 PCI ko soinu txartela ...)

149.900 Pta + %16ko Bez a.

- ⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra



Activa
mobila:

Orain PACK MOVISTAR

Kirol probak, su artifizialak eta Iratxo taldea gaur Astigarragan, jaietako azken egunean

■ Atzo giro ederra izan zen arratsaldeko dantzaldian ■ Bihar diapositiba emanaldia.



Astigarragako idi dema. Argazki haundian Frantzillako idiak proban. Txikian, Latasarenak mantekin.

SANTIO bezperan hasi eta gaur bukatuko dira Astigarrako jaiak. Gaztelekuko gazteek egin zuten pregoia. Ilunbe Musika Bandak, Akelarre taldeak eta Txalaparta txarangak girotu zuten gaua.

Santio eguna txokolatea hartuz hasi zuten Astigarragan. Diana, meza eta Santiomendira kronoeskalada izan ziren goizean. Arratsaldean, *Astigar* dantza taldearen dantza saioa izan zen ekitaldirik garrantzitsuenetakoa. Gauean, gerriak mugitzeko, Ku-

bako musika: *Son Caliente*.

‘SANTA ANA’ JAIA

Santa Ana egunean idi demak eta herri kirolak izaten dira nagusi. Hori bai, urtero zerbait berria jarrita. Iturengo joaldunen soinura, eguerdi parte osoan bazen nahiko sagardo eta pintxo. Hamabietan, idi dema eta aspaldiko partez Astigarragako idiak tartean. Hiru pare izan ziren: Idarretarenak, Loinazanak eta, bertakoak, Latasarenak. Milana kilo buel-tako bi idi eder. Latasaren idi

pareak 54 plaza egin zituen 2.000 kiloko harria (eta zegokion gainkargarekin), Loinazanak baino 8 gehiago eta dema plazako marka baino bost gutxiago.

MARKESA ETA BASERRITARRAK

Arratsaldean ikuskizun berezia egin zuten: Markesa baserritarrengana errenta kobratzera joaten zeneko (deneko) pasadizo antzeztu zuten lau herritarrek. Gauean Trakets taldeak jo zuten beheko plazan. □

JASOTA BEZALA

NOIZ ARTE SUFRIMENDUA EUSKAL HERRIAN

Olaia Kastresana Landebera gaztearen heriotza dela eta zera adierazi nahi diogu Hernaniko herriari. Lehenik eta behin, hinbeste sufritzera ohituta dagoen herri baten gertaera latz bat izan dela. Baina honek gure ustetan, KONPONBIDE DEMOKRATIKOAREN beharra baino ez du azaleratzen, galtzaile eta irabazlerik gabeko konponbidea. Demokratikoa bai, Euskal Herriaren eskubideak baitira gatazka parametro militar bazuatan kokatzen dituztenak (Ez inongo proiektuen inposatzea, batzuk E.A.-ri intentzio oso maltzurrez atxikitzen dioten bezala). Inposaketak, egon badira, Frantses-Espainolak egunero ordezkatzen dituztenak, beraien lege, estatus juridiko-politiko, naziotasuna etab... izatera kondenatzen baikaituzte. Eta kontuz, estatu zapaltzaile eta beraien jarraitzaileak INPO-

SAKETA erabiltzen dute, beraz, gatazka inposizioan erroturik dago eta EZ IDEOLOGIEN DESBERDINTASUNEAN, beste batzuk, oraindik are maltzurrago behin eta berriro ari direnean oihukatzen. Bitartean abertzaleok aurrera egiten saiatzen gara, batzuk, ohiko koherentziaren alde lanean, hobeto edo okerrago baino zintzoki lanean, besteak aldiz, koiunturaren arabera, alde batera edo bestera lerrotatzen dira, beraien interes partidista edota ekonomiko-politikoak direla eta. Izan ere ez dugu ulertzen nola giza eskubideen izenean hainbeste hitz egin daitekeen eta Euskal presoetaz koiunturaren arabera paso egitea, ala tortura kasuak direla eta itxuaena egitea, jipoiak, mehatxuak eta bestelako gertaerak direnean ezer ere ez esatea.

Edota elkarriketaren alde egotea eta gero E.A. baztertzeara, edota Euskal Herriaren alde egin beha-

rrean, Madrilan arrastaka dabilzki-gun kateak indartzea, edota koiuntura politiko gogorra izanda gatazkaren parametroak biolentzian kokatu nahi izatea (Lizarra-Garazi akordioari bizkar emanez), funtsean, zintzoki ez duzelako jokatzeko, moralitate bikoitzaz trufa egiten diozue herri honi, ez baituzue ezer ere egiten beraren alde, ETA erakundearen 18 hilabetetako su-ete-nean erakutsi zenuten bezala eta orain berbaieztatzen duzuen bezala, azken finean, erreza delako oso erroturik dauden balore etikomoralek batzuen atzean ezkatutzea norberaren erantzunkizunaz ihes egiteko. Baina guk aurrera jarraituko dugu, zintzoki eta koherentziaz, beti bezala, Herri honetan ematen diren sufrimendu espresio guztiak gaituzte nahian, azken finean, KONPONBIDE DEMOKRATIKO baten alde lan eginez. Eta ZUEK?...

HERNANIKO EZKER ABERTZALEA

Antziola kalea itxita egongo da gaur goizetik gauera

OBRAK direla-eta gaur, larunbata, Antziola kalean bidea moztuko dute goizeko 07:00etatik gaueko 22:00ak arte, 15-17 portal parean. Ordezko ibilbidea Floridatik Antziola 37ra dijonan bidea izango da. □

SENIDEAK ELKARTEA

Presoak Euskal Herriratzea eskatuko dute ‘N-1’ean gaur

■ Hemanin goizeko 11:30etan gelditu dira Atsegindegin.



Iaz, Presoak Euskal Herriratzeke dioten pankartekin.

GAUR 12:00etatik 13:00-etara errepide nagusiko 200 kilometrotan jarriko da jendea *Euskal Presoak Euskal Herri*rako pankartekin, *Senideak-Gureak* elkarteak deituta.

HERNANIN LEHENAGO Hernaniarrei egokitu zaien errepide tartera joateko ordu erdi aurretik jarri dute zita ordua: 11:30etan elkartuko dira Atsegindegin. □

PELOTA - LAUTERDIKOA-

Hernaniko lauterdiko finala gaur Tilosetan 12:30etan

■ Oier Mendizabal eta Jagoba Yubero ariko dira gaur Hernaniko lauterdiko txapelketan. Eguraldi txarra bada finala Urrietako pilotalekuan jokatu dute seguruenik.

ERREMONTA

Gaur hasiko da ‘Bingo Londres’ torneoa Galarretan

■ Arratsaldeko 16:00etan hasiko da jaialdia. Iñigo eta Etxaberen arteko txapelketako partidua 17:00ak aldera jokatu da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 553582
▶ Gauez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 553582

**5.000 PTA URTEAN
KRONIKAREN ALDE
IZAN ZAITEZ ZU ERE LAGUNTZAILE**

DEITU 943-330899

IRAGARKI MERKEAK

■ Loro txiki bat galdu da Karmelo Labaka inguruan. Berdea eta horia da. Ikusi duenak deitu: 630-118852.